

Ausazko jokoetan (kartak, makina txanponjaleak, bingoak, loteriak, kinielak, apustuak, etab.) aritzen diren pertsona gehienek haiekiko joera egoki eta arduratsua izaten dute. Hala ere, kontrolik eta mugarik gabe jokatzeak ondorio larri eta garrantzitsuak izan ditzake jokalariarentzat eta haren ingurukoentzat

JOKOA ETA KONTROLA

Kontrola galtzea da funtzionamendu okerra salatzen duen adiera- zleetako bat: hasiera batean pentsatzen zena baino diru gehiago xahutzen da jokoan eta hasiera batean aurreikusitakoa baino den- bora gehiago eskaintzen zaio jarduera horri.

" Adinez txikikoek, legez ezgaituek, debekatuen zerrendan agert- zen direnek eta ordena, lasaitasuna eta jokoaren garapen egokia oztopatzen dutenek ezingo dute jokatu, saridun makinarik erabili edota inolako apustuetan parte hartu (Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan jokoa arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legea).

Pdf deskarga